...eta **kitto!**

885 zkia.
2014-IV-4



# Eskerrik asko, KOLDO

EUKi
ARTEKARITZA
Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99



AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA
# IZEN-ABIZENEKIN



## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA





Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Inplantologia Masterreko Irakaslea.
**Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
**Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

## ETENGABEKO ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkartea**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguzu!

asociación de comerciantes de eibar
eibarko dendarien elkartea



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
**Galdetuiguzu!**











IRAZABAL clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA** **Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR -** Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KALE.- Herria, baserria ez dena. Huts. *"Kalia ala baserrixa dozu nahixago?". "Maskuelok, lehelenguetan kale, posturak berotzeko; gero hiru txirluak bola bakotxian".*
KALE EGIN.- Huts egin. *"Dirutara joan da andriaren etxekuetara, baiña kale egin dau".*

# ASTEAN ESANAK

"Globoko eremu geografiko gehienetan ordularia atzeratua dago eguzkiaren orduarekiko, nabarmen gainera. Europa erdialdeko biztanleen %40k *jet lag soziala* jasaten du: eremu geografiko handietan, ordulariek ordu bera jasotzearren, herritar andanak eguzkiak eta gorputzak markatzen duen erritmo naturalarekiko desfasea jasaten baitu"
(GORKA ZOZAIA, KIMIKARIA)

"Politikaria izateko, oso berezia izan behar da bat, nartzizista oso eta baita exhibizionista ere. Ohikoa da nortasun desorekak izatea: ez dira gaixotasun psikiatrikoak, baina muga-mugan daude. Eskrupulorik ere apenas duten, negozio munduan gertatzen den bezala"
(JOSE GUIMON, PSIKIATRA)

"Lehen Mailara igoz gero, beste hamar urterako dirua genuke, gutxienez. Baina burua ez da galdu behar. Gure aurrekoek hasitako bidean jarraitzen du klubak. Zer garen jakinda, oinak lurrean eduki behar ditugu, eta datorren denboraldian hutsetik hasi. Uste dut zuzendaritzakoek ere garbi dutela zer egin"
(JUAN LUIS MARDARAS)

"Ez da etikoa Europar Batasunean fracking-ari galga jartzea eta AEBei fracking bidezko gasa erostea. Ez badaukazu energia politika bateratu bat, eskuak eta hankak lotuta geratuko zara. AEBetakoa EBren energia kostuen erdia daukate gasean eta elektrizitatean"
(MARIANO MARZO, KATEDRADUNA)

# editoriala

## KOLDO MITXELENA LAGUN ETA LANKIDEARI, ESKER ONEZ

Handi bat joan zaigu. Gure artekoa baino gehiago, gure barrenekoa. Latza da gero erraietako mina sentitzea, errairik gabe geratu garenean. Koldo, ...eta kitto! Elkarteko koordinatzailea, hil zaigu, batbatean, lanen erdian, gure bihotzak uzkur-uzkur eginda utziaz.

Bihotza dar-dar dugu, eta elkartearen antolakuntza beste horrenbeste, baina harro gaude, Koldok guri eman dizkigulako bere urterik onenak; harro, bere ahalmen eta dohainak elkartearen alde, euskararen alde, eta herrigintzaren alde eman dituelako.

Elkartearen izenean hau idazten dugun zuzendaritzakideok nabarmendu nahi dugu urte guzti hauetan egindako bidean garrantzitsuak izan direla Koldoren ekarpenak. Konpromiso sakonekoa izanik, argi erakutsi digu euskalgintzako lana ez dela beharra, lana bizimodu bat dela baizik; izatearen luzapena eta izatea bera.

Ekar dezagun gogora elkarteak antolatutako edozein ekintza, edozein ekimen, edozein iniziatiba, eta lehenengo begiradan, lehenengo kolpean, aurkituko dugu beti Koldoren arrastoa, Koldoren ideia, Koldoren lana.

Ez bakarrik Eibarren, baita eskualdean eta Euskal Herri osoan ere. Elkarteko ordezkaria izan da maila eta hedapen guztietako erakundeetan, bereziki Topagunean, Euskara Elkarteen Federazioan. Eta eragiletza zabal horren isla ditugu ale berezi honetan argitaratzen ditugun artikuluak eta bildu ditugun iritziak.

Iritzi sendokoa, entzule ona eta gogoeta lasaikoa genuen, eta norabide teorikoak ebazterakoan ere, aintzat hartzeko moduko oharrak egin dizkigu sarri. Beraz, eragile, pentsalari, antolatzaile, egile eta langile. Gehiagorik? Bai, jakina. Mutil maitakorra, lagun ona eta bihotz onekoa.

Hasieran esan bezala, handia galdu dugu, baina neurri berean, handiak dira laga dizkigun obrak. Hitzak baino gehiago, ekintzak izan dira bere emaria, eta ekintza horietako bat eskuartean duzun aldizkari hau duzu, irakurle. Elkarteak euskararen alde antolatzen dituen ekintza guztien eta oraindik egiteko edo argitaratzeko dituen beste batzuen eragile sutsua izan da Koldo.

Beraz, goibel, baina esker onez, Koldori gorazarre eginez, Koldok laga dituen lanei ekinez, lemazain handiari gero arte esanez eta berari esker elkarte hau hobea dela aitortuz, AGUR, LAGUN ETA LANKIDE!


...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.150 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

# Bilduko ziñegotzi aldaketia



*Martitzeneko aurkezpenaren irudia.* SILBIA HERNANDEZ

**Asteleheneko plenuan Eibarko EH Bilduko ziñegotzixetako bik, Soco Baskaranek eta Begoña Vesgak kargua laga eben** eta, hamendik aurrera, euren ordez Igone Lamarain eta Gorka Novoa izango dira ziñegotzi barrixak aurrerantzean. Igone Lamarainek Soco Baskaranen tokixa hartuko dau eta euskera eta kultura arluetan egingo dau biharra: "Eibarren ez eze, Euskal Herri maillako euskalgintzan oso ezaguna da. Oin dala gitxira arte …eta kitto! euskera alkarteko lehendakarixa izan da eta Euskal Herrian Euskaraz-eko bozeramaillia be izan da. Gaur egunian Ikasle Euskaldun Eleaniztunak egitasmuan dihardu biharrian eta gure herrirako euskeriaren ordenantza baten alde jardungo dau". Gorka Novoak, bestalde, Begoña Vesgak ogasunari lotutako esparruan egitten zittuan biharren arduria hartuko dau bere gaiñ. Novoa enpresa zientzietan diplomaua da eta Ekonomia-Enpresan masterra dauka. Bere ikasketeri esker, alderdixak arlo horretan sendotzeko aukeria eukiko dabela pentsatzen dabe.



# Armerixako Ikasle Ohien batzarra

**Aurreko asteburuan, zapatuan egiñ eben Armerixa Eskolako Ikasle Ohien Alkarteko LXIV. Batzar Nagusixa**. Jardunaldixaren lehelengo zatixan bakarrik alkarteko bazkidiak hartu eben parte, baiña eguardixan taldiaren erretratua etara eta jarraixan, 3D inpresiñuaren inguruko hitzaldixa emon eben eta, bazkaltzera juan baiño lehen, Armerixa Eskolako 3D laboratorixua inaugurau eben.

Bestalde, datorren martitzenian Armerixa Eskolaren mendeurrenaren inguruan egindako dokumentalaren estrenua hartuko dau Coliseo antzokixak, 19.00etatik aurrera. Emanaldi bakarra eskinduko dabe eta ikustera sartzeko inbitaziñua eukitzia biharrezkua izango da.

# Enpresa singularrak sortzeko laguntzak

**Debegesa garapen ekonomikorako agentzixak, Gipuzkoako Foru Aldundixak emondako laguntzari esker,** enpresa singularren bat sortu nahi dabenen artian 120.000 euro banatuko dittu. Diru-laguntzak negozixua martxan ipiñi ahal izateko inbersiñuan laguntzeko asmuarekin emongo dittue eta, gehixen jota, inbersiño osuaren %75 edo 7.000 euro jasotzeko aukeria egongo da proiektu bakotxeko (industria arloko enpresen kasuan, 10.000 euro emongo dittue gehixen jota). Interesa dakenak ekaiñaren 30era arte eukiko dabe eskatzeko aukeria. Diru-laguntzak eskuratzeko bete biharreko baldintzak eta bestelako argibidiak, bestalde, www.debegesa.com helbidian emon dittue argittara.



# Sarrera salmenta-sistemekin kritiko

**Coliseo antzokixan sarrerak erosteko herrittarrak luzaruan zaiñ egon bihar dirala-eta kezkatuta dagoz EAJ-kuak** eta Eva Juez udal lantaldeko bozeramailliak arazua konpontzeko eskatu detsa udal gobernu sozialistari. Aspaldiko arazua dala diñue jeltzaliak: "Zoritxarrez hau ez da gertatzen bakarrik pelikula arrakastatsuekin, bestelako ekitaldixetan be illada luziak sortu izan dira-eta".

Coliseo antzokixa kudeatzen daben enpresakuekin berba egiñ eta ahalik eta azkarren arazua konpontzeko eskatziarekin batera, EAJ-kuak hainbat proposamen egin dittu: jende mordua juango dala aurreikusten dabenian sarrerak zerrendatzia; aurresalmentari lehenago ekitia; eta, sarrerak inprimatzeko makiña bakarra dakela kontuan hartuta, sarrerak aurretik inprimitzia proposatzen dabe, "salmentia azkarrago egiñ eta leihatilla guztiak zabaldu ahal izateko".



JUANMA CANO

# Aho osasunaren inguruko jardunaldixak

**Osakidetzak eta ESI Debabarrenak antolatuta, aurreko asteko barixakuan** aho osasunaren inguruko jardunaldixak hartu zittuan Mendaroko ospittalak. Lehelengoz egin diran jardunaldixak aho-osasunaren inguruan biharra egitten daben 150 bat profesionalen parte-hartzia euki eban eta hitzaldixetan aho-osasunarekin lotutako hainbat gai jorratu zittuen, batez be umieri, zaharreri, haurdun daguazen andreri, ezindueri eta transplantautakueri arreta ipiñitta.

Argazkixan, ezkerretik eskuiñera, Maitena Urberuaga (komite zientifikoko burua), Manuel Bravo, Maria Berriatua, Carmen Martin, Elena Lopez-Arranz, Federico Simon (Eusko Jaurlaritzako Hortz-asistentziarako zuzendarixa, Arantza Mendiguren (ESI Debabarrenako zuzendari medikua), Mikel Aldalur, Purificacion Martinez, Ana Alonso eta Elias Rodriguez.



## autuan

### DENDARIXAK BERBETAN

**Herriko dendarixeri bereziki eskindutako mintzapraktika egitasmoko taldiak batzen hasi dira. Euskeria praktikau nahi daben komerziantiak dendari euskaldunekin alkartuko dira, astian behin, giro natural eta lasaixan euskeraz berba egitteko. Programan parte hartu nahi dabenak ...eta kitto!-ra, 943200918 telefono zenbakira deittuta informaziño gehixago jaso eta izena emoteko aukeria izango dau.**



### KANBIXUAK HILLERRIXAN

**Apirilla, maiatza, ekaiña eta iraillian kanposantura juan nahi dabenak ordutegixetan kanbixuak egin dittuela kontuan hartu biharko dau: lanegunetan 10.00etatik 20.00etara zabalduko dittue atiak eta jai-egunetan, barriz, 10.00etatik 14.30xetara. Eta abuztuan, astegunetan 10.00etatik 18.00etara zabalduko dabe hillerrixa eta jai-egunetan bakarrik goizez, 10.00etatik 14.30xetara.**

# Ordutegi barrixa Pegoran

**Apirillaren 1az geroztik, ordutegi barrixa dake Pegora herrittarren zerbitzurako buleguan.** Aurrerantzian, eta udako ordutegixa indarrian sartu bittartian, astelehenetik eguaztenera goizez 08.30xetatik 14.30xetara eta arratsaldez 15.30xetatik 19.00etara hartuko dabe jendia eta eguen eta barixakuetan, barriz, bakarrik goizez atendiduko dabe (08.30xetatik 14.30xetara). 010 edo 943708400 telefonuetara 08.00etatik 19.00etara deittu leike astelehenetik eguaztenera eta 08.00etattik 15.30xetara eguen eta barixakuetan.



# Donostian fusilautako famelixakueri deixa



**Altxamendu frankistan eta ondorengo urtietan Donostian fusilau zittuenak gogoratzeko** omenaldixa preparatzen dabiz hango udalian eta, ekitaldixa dala-eta, Eibarko udalari laguntza eskatu detse, Donostian fusilau zittuen eibartarren famelixakuekin kontaktuan ipiñi ahal izateko. Eibartik Donostian fusilautako 371 lagunen izen-abizenak bialdu detse (www.donostia.org/bakearenetxea webgunian ikusgai) eta oiñ herrittarreri dei egitten detse, omenaldixan parte hartu nahi badabe eurekin kontaktatzeko datuak apirillaren 15a baiño lehen Eibarko udaletxian emoteko (Ana Telleria alkatiaren idazkarixari, 1. pisuan).




# Errigorako olixo eskintza

**Udazkeneko kanpaiña arrakastatsua aprobetxauta, Nafarroako hegoaldeko nekazarixekin** harreman iraunkor eta zuzenak eraiki nahi dittu Errigora alkartiak. Eguneroko konsumo-ohitturetan eragitteko bide barrixak lantzeko asmuarekin, oliba olixo birjiña ekoizliaren jatorrizko preziuan erosteko aukeria emon nahi detse jendiari: bost litroko bidoia 16'50 eurotan erosi leike (bestela preziua 27 euro ingurukua da) eta, ekologikua aukeratuz gero, 22 eurotan dago salgai. Eskaeriak apirillaren 15era arte egin leikez, eibar@errigora.org helbidera idatzitta edo zuzenian AEK euskaltegixan edo LAB sindikatuaren egoitzan eskatuta eta hillaren 29-30erako jasotzeko moduan egongo da

*Altzolan jaiotakoa bada ere, Eibarrekin lotura handia izan du Jon Etxabek. Eta izaten jarraitzen du: Etxarrin azken urteak egin eta gero, badira lau hilabete berriro Eibarrera etorri dela. Azitainen ere bost urte eman zituen apaiz Francoren sasoian, atxilotu eta Zamorako kartzelara eraman zuten arte. Bost egunez torturak jasan eta gero, zortzi urte egin zituen han eta bertako bizipenak kontatzen ditu* ***datorren martitzenean, hilaren 8an, Portalean aurkeztuko duen "ZAMORAKO LANDAN" liburuan****, bere oroitzapen eta iritziekin. Berarekin izango dira egun horretan Jesus Gutierrez historiagilea eta Xabier Amuriza bertsolaria.*




# Jon Etxabek ondo gogoan dituenak

## ZAMORAN BIZITAKOA EZ AHAZTEKO

***- Zergatik erabaki duzu liburua argitaratzea?***

Amuriza bertsolaria eta, nire moduan, kartzelan preso egondako abadearekin behin baino gehiagotan komentatu izan dut eta berak esaten zidan Zamoran egindako urteetako bizipenak galtzea pena izango zela. Zerrenda bat banuen eginda eta, horko ipuin batekin, lehiaketa bat ere irabazi nuen. Formatuan, gai bakoitzak hamar orrialde hartzen ditu, bataz beste, eta hamazazpi narrazio motz daude. Ilobak ordenagailura pasatu zidan eta baita oparitu neri. Arrasateko Intxorta elkartekoek gustora hartu zuten aurkeztu nienean eta argitaratzera animatu. Kartzelan egin genituen ekintza nagusiak eta eguneroko bizitza isladatzen duten narrazioak jasotzen ditut, Zamoran egin nituen zazpi urte horietakoak.

***- Handik irten barik eman zenituen zazpi urteak?***

Ia bai. Kenduta, zigor moduan, Cartagenara bidali eta han eman nituen lau hilabeteak eta, jakina, Burgosko prozesurako epaia izan zenean, han eman nituen egunak.

***- Zelako kartzela zen Zamorakoa? Bazuen ezberdintasunik?***

Elizaren eta estatuaren kartzela zen, apaizondako estatuan zegoen bakarra. Baina, herri-mugimenduen presioarekin -eta ez bakarrik hemen, Euskal Herrian, zegoenarekin-, eurei ere jasanezina egiten zitzaien jarraitzea eta ahalegindu ziren, bai apezpikuek eta baita gobernua ere, kartzela ixten; baina militarrek ez zieten laga. Hemendik kanpo, Madrilen eta Bartzelonan batez ere, mobilizazio asko izan ziren. Azken lau urteetan zazpi abade besterik ez ginen han, arnasberritzea ere etorri zen eta, Franco hil zenean, Kalzada eta biok geratzen ginen.


*Jon Etxabe Zamorako kartzelan, 1971-72eko neguan*

***- Zer esan dizute liburua irakurri dutenek? Jendeak zer aurkituko du liburuan?***

Kartzelako gorabeherak kontatzen badi-tut ere, ahalegindu naiz, teknika ezberdinak erabiliz, jendea ez aspertzen. Horretarako, narrazioak puzzle gisan nahastu ditut. Amurizaren bertsoek ere bizitasuna ematen dute. Estilo arina jorratu dudalakoan nago; ahalegina hor dago, asmatu edo ez. Bestalde, kartzela hobeto ezagutzeko balioko duelakoan nago; zeren hura zapaldu ez dutenek ez dakite zenbateraino ez diren jabetzen harek eskaintzen duen gordintasunetik. Nolako isolamendua dakarren, zelako probokazioei aurre egin behar zaien...

## PRESOEN ALDEKO JARDUNEAN ORAINDIK

***- Gaur egun ere badakigu presoen eskubideen alde lanean diharduzula. Zelan ikusten duzu haien egoera?***

Lau hilabete dira Eibarrera bueltatu nintzela eta, Etxarrin eman ditudan azken urteotan, hango batzarretan-eta parte hartu izan dut, bai Etxerat-ekin eta baita Sasoian izeneko jubilatuen mugimenduarekin. Hain herri txikia izateko, preso asko daude Etxarrin: bederatzi badira. Bestalde, gaur egun presoek bizi duten egoeraz ez naiz baikor: ez zaizkie irtenbiderik eskaintzen eta, ohikoa denez, haien aldeko herri-mugimendu indartsua izan beharko da zeozer lortzekotan. Orain arte ez da nahikoa egin, interes asko baitaude tartean. Gainera, kartzela, onena izanda ere, basakeria hutsa da, mendekua besterik bilatzen ez duena. Azken mugimenduak, presoenak-eta, aldebakarrekoak dira eta Madrilek ez du bere jarrera aldatzen, nahiz eta nazioarte mailan erretratatuta geratu.

***- Orain dela gutxi, bideokonferentzia bidez, frankismo aldian sufritutako torturak azaldu dizkiozu Argentinako Maria Servini epaileari. Hor leihorik zabaltzeko aukerarik ikusten duzu ordukoa argitze bidean?*** →

## EUSKERARI GUZTIZ EMANIKO URTEAK

***- Euskeraren inguruan ez duzu ibilbide motza egin; sutsu jardun duzu gainera. Baita EHE-en militatu... Hasierak, baina, ez ziren hain samurrak izan, ezta?***

Seminarioan -hori bai lotsagarria- ez genuen euskerarik ezertarako landu. Euskal kontzientzia ere Eskoriatzako Marin auzoan egindako sasoian landu nuen, orduan ere sermoiak erderaz egin arren. Hemen Azitainen, baina, euskaldunen eskubideen aldeko jarrera indartzen jardun nuen eta euskerazko zine-foruma ere antolatu genuen, euskal gramatika ezagutzen ez bagenuen ere. Kartzelan alfabetatu nintzen ni, Amurizak ematen zituen klaseetan. Amnistiarekin behin kartzelatik irtenda, Debako Eskolak eskaini zidan irakaskuntzan sartzeko aukera






eta, euskeraren alde, hango Gurasoen Elkartea lan handia egin zuen. Karmelo Urdangarin zuen kolaboratzailea tartean zegoen. D eredua irakaskuntza publikoan sartzeko gogor borrokatu behar izan genuen eta grebak ere egin behar izan genituen tarteko. Pedagogia ikasi barik eta ez titulorik ez magisteritzarik; prestatu beharra zegoen. Horrela atera nuen Magisteritza, Euskal Filologian: hiru urtetan astebururu osoak ematen nituen UNED-en eta, batzuk titulua oparitu zigutela bazioten ere, ez da izango guk baino lan gehiagorik aurkeztu behar izan duenik Magisteritza ateratzeko. Gero, Elgoibarren D eredua sartu genuen, klaustroan nagusitu ginelako, eta niri aurre-eskolan jardutea egokitu zitzaidan, hiru urteko umeekin. Behin Eibarrera etorrita, ...eta kitto! elkartearen sorrerako taldean izan nintzen Fernando Muniozgurenek bultzatutako saiakeran eta ondo gogoan dut sarrerako testua ere nik jiratu nuela.

***- Zelan gogoratzen dituzu Azitainen emandako urteak?***

Bost urte izan ziren eta harreman oso ona izan nuen hemengo jendearekin; gertukoak sentitzen nituen, batez ere. Nire barnean, dena dela, apaizaren papera zalantzan jartzen hasi nintzen, halako krisi bat izan nuen, Kontzilioa ere pasatuta zegoen eta gure sermoiei zer edo zer falta zitzaien. Jendearekin harremanak jorratu nituen eta JOC-aren (Juventud Obrera Cristiana) inguruan jardun genuen; beste herri batzuetan Euskal gaztediak indar gehiago izan zuen. Egia esan, gazteekin eta langileekin izan nituen esperientzia onenak eta ohartu nintzen sindikatuak eraginkorragoak zirela.

***- Bi apaiz izan zineten Burgosko prozesuan, Julen Kaltzada eta zu zeu. Zein eragin izan zuen horrek?***

Gu prozesu horretan izatearena nahiko eztabaidatua izan zen eta bere arriskuak bazituen. Sekularizatzeko gonbidapena ere izan genuen, onartu ez bagenuen ere. Abadeen mugimenduak lan asko egin zuen sasoi hartan eta gu apaiz moduan agertzeak bazekarren elizaren jarrera azaltzearen abantaila ere. Nik, gainera, ez nuen ezkutatu nahi izan armatuta ibili nintzela, abokatua kontrako iritzikoa izan arren. Abadea, fedea eta elizaren arteko kontraesanak agertu nahi izan nituen; ez dut inolako segurtasunik lortu nuela esateko.

***- Arma hartzeak ez zizun barneko kontraesanik sortu?***

Zelan ez! Laguntzaile gisa jardun banuen ordura arte, liberatuarena beste urrats bat zen, eta ez nolanahikoa. Baina nire burua babestu beharra nuela esan zidaten eta beharrezkoa ikusi nuen aurrera egitea eta ez nintzen kokildu. Doktrina ofizialak nahi duena esan, baina Hegoamerikan ere abade bat baino gehiago sartu zen gerrillan. Ez gaitezen engaina: ez da ba Eliza beti arma gizonekin ibili, estatuekin bat eginda askotan? Kapellau militarren figura-eta, nondik datoz ba?

***- Dena dela, oraindik ez zara sekularizatu, ezta?***

Ez, ez. Zertarako hainbeste papeleo? Denbora mordoa galtzea besterik ez dakar horrek. Gainera, seminarioan izandako hainbat abade elkartzen jarraitzen dugu. Hor izateak aberastu nau ere: esperientzia handia eman dit eta bizitza ikuspegia zabaltzen lagundu.

Etorkizun motza ikusten badiot ere, momentuko irtenbidea besterik igual ez da izango, beste bultzadatxoa da bide horretan, Madril aldatuko ez bada ere. Hemen ez bezala, Argentinan behintzat zeozer egiteko gogoa erakutsi dute eta poztasuna ematen du nazioarte mailan zabaltzeak. Nire moduan, beste asko daude salaketak egiteko, estatu osoan. Eta datuak ere ondo gordeta ditut, orduko nire abokatuak ikerketak eskatu eta ni torturatu nindutenen izen guztiak jaso zituelako. Bestalde, egun horretakoa pantaila aurrean nuen epaileari pare bat galderei erantzutera mugatu zen.

***- Eta ETAk borroka armatua laga ondorengo une hauek, zelan bizi dituzu?***

Prozesu luzea, korapilatsua eta zaila aurreikusten dut. Zaila da aurreratzea nondik joko duen honek guztiak, baina bide horretatik joan behar du. Ez dago motibo askorik baikorra izateko, baina pazientzia handia izan behar dugu, gogor eutsi behar diogu eta gauzak konponbidean jartzeko ahaleginean jarraitu. Merezi du.

# Ander Romarateren erakustaldi berria

**Parte hartutako bost probetan urrea bereganatuta, bere maila handia erakutsi zuen Urbateko igerilariak** Madrilen jokatutako autonomia erkidegoen arteko Espainiako txapelketan. Romaratek euskal selekzioarekin hartu zuen parte eta, guztietan irabazteaz gain, hiru marka ezarri zituen: 200 bizkarrekoan eta 50 eta 200 bularrekoetan. Bestalde, Ipurua kiroldegian jokatutako benjamin eta alebinen arteko kirol zehaztasun ligako 4. jardunaldian, gure herriko igerilariek erakutsitako progresioaz gain, 4x50 estiloko erreleboetan nagusi izan ziren Urbatekoak.



*Ander Romaratek urtetik urtera ikaragarrizko progresioa erakusten segitzen du.*




# Aitziber Urkiola podiumean Barakaldoko duatloian

**Aurreko domekan jokatutako Barakaldoko duatloian eibartarrak 3. postua lortu zuen,** Ainhoa Murua irabazle olinpikoaren atzetik. Bezperan Osoro anaien ordua izan zen Arbizuko duatloian: Txomin onena izan zen juniorretan eta Pello anaia bigarrena 23 urtetik azpikoen artean. Sasoiko ikusten ditugu Deltecoko ordezkariak gero eta gertuago dagoen Eibarko duatloiari begira: hilaren 26an jokatuko da, Euskadi eta Nafarroako duatloi zirkuitoaren amaierako proban.

# Udaberri torneoko partiduak gaur Astelenan

**Arratsaldeko 19.15etan hasita, Udaberri torneoko kaiola barruko bi partidu jokatuko dira**. Lehenengoan Deporreko Unamunzagak (edo Agirresarobek) Elgoibarko Agirrebeñaren aurka jardungo du eta, jarraian, Arribillaga eibartarrak Azkoitiko Alberdiren kontra egingo du. Aurreko asteburuan, bestalde, Deba Arroko torneoaren barruan, Arribillagak eta Bengoetxeak, kostata izan bazen ere, 22-19 irabazi zien Txurruka eta Lizarralde elgoibartarrei. Gazte mailan, Velascok eta Izagirrek 9-22 galdu zuten.



# M. San Martin foballaria selekzioarekin

**Dani Perez entrenatzailearen aginduetara hain denboraldi bikaina** egiten diharduen Urki nesken foball taldeak merezitako saria jaso du oraingoan eta Miren San Martin jokalariak bi entrenamendu egingo ditu Zubietan maiatzaren 1ean Realaren elastikoarekin Azpeitia Cup torneoa jokatu aurretik.

# Eibar FT-ren ezohiko batzarra astelehenean Armeria Eskolan

**Garrantzi handiko batzarra egingo dute datorren astelehenean, 19.30-etatik aurrera, kapital-zabalkuntzari buruzko monografikoa** izango dena, hain zuzen. Joan zen asteko eguaztenean Kirol Kontseilu Nagusiak atzera bota zuen Eibarrek aurkeztutako helegitea eta, modu batean edo bestean, klubak 1'7 milioi euroko zabalkuntza horri egin beharko aurre abuztuaren 6rako. Batzarrean bete beharreko baldintzak emango dira jakitera.

Domeka eguerdian (12.00etan) La Romaredan Zaragozaren aurka jokatuko duen partidua Canal Plus emango du zuzenean. Talde bien arteko aldea 15 puntukoa da, eibartarren alde, Liga amaitzeko hamar partidu besterik geratzen ez direnean. Morales aurrelaria, lesiotik sendatuta, taldekideekin izango da Aragoi aldean.



*Eibarrek hiru gol sartu zizkion Leo Francori Ipuruan.*

# Atletismo egokituko Gipuzkoako txapelketa bihar Unben

**Bihar arratsaldean Unbe kirolgunean atletismo egokituko Gipuzkoako txapelketa jokatuko da,** 16.00etan hasita. Jokoan probintziako txapelak izango badira ere, parte hartzea kanpokoentzat ere zabalik egongo da. Honako probak izango dira jokoan: pisu jaurtiketa, zakutxo-jaurtiketa, klub jaurtiketa, luzera jauzia, altuera jauzia eta 100, 200, 300 eta 3.000 metroko lasterketak.



# Ipuruako gimnastak torneotik torneora




**Nagornaia, Prieto eta Merino prestatzaileek egindako egitarauaren barruan, eta hurrengo txapelketak prestatzeko bidean,** Donosti torneoan izan ziren alebin eta benjamin A taldeak (eskola mailan) eta infantil, kadete eta junior taldeak (federatuetan). Horiez gain, Jenifer Hernandezek eta Irati Yarzak bigarren postua lortu zuten Gasteizeko Oskitxo taldekako torneoan eta Bergaran, bestalde, Gipuzkoako eskola mailako txapelketa jokatu zen. Azken horretan, benjamin mailako A eta B taldeek hainbat diploma jaso zuten parte hartzeagatik.

## berriak

### ERRUGBIA

**Hierros Anetxek garaipen handia lortu zuen Uribealdea liderraren aurrean (19-16). Xabier Bengoa eta Ander Bergara promesa gazteak jokatuko zuten lehenengo taldearekin.**

### SASKIBALOIA

**Katu-Kale sasoian dago eta, horren lekuko, Gamon Grupo Bidaniaren kantxan lortutako garaipen garbia (35-56). Ruibalek ere, maila galdu arren, pixka bat gozatu du bere egoera eta Astigarragako Mundarrori 53-63 irabazi zion.**

### ESKUBALOIA

**Somos Eibarrek lidergoa sendotu zuen Trapagan 23-27 irabazita. Liga amaitzeko bi partiduren faltan, eibartarrek lau puntu kentzen dizkiote Zaragozako Dominicoseri.**

# Aurten ez da IV. Rallysprint-a jokatuko

**Froga aurretiko eta osteko antolakuntza lanetarako kiderik aurkitu ez duenez,** Escuderia Eibar elkarteak azken urteotan uztailean antolatu duen proba ez egitea erabaki du. Erabaki horrek, dena dela, ez du esan nahi eskuderiak ez duela bere jardunarekin jarraituko, gaur egun lizentziarekin dituen 15 pilotuk Euskal Herriko mailako lasterketetan parte hartuko baitute. Gainera, litekeena da ondorengo urteetan probaren antolakuntza berreskuratzea.






# VALENCIAGA MEMORIALAren 43. edizioa domekan




**Herenegun arratsaldean aurkeztu zuen Eibarko Txirrindularitza Elkarteak afizionatuen mailan dagoen estatuko lasterketarik garrantzitsuena.** 27 taldek hartuko dute parte lasterketa gogor horretan, tartean Espainiako Kopan buru diren Unai Inziarte eta Gipuzkoa bere taldea, Jon Odriozoloaren aginduetara. Nola ez, hor izango da Juanjo Sebastianek zuzentzen duen Klub Deportiboko Debabarrena taldea ere, bere maila onena emateko prest. Valenciagaren historialean izen handiko txirrindulariak daude, tartean Julian Gorospe, Jokin Mujika, Unai Osa, Oscar Freire, *Purito* Rodriguez eta Mikel Nieve, esaterako. Iaz Airan Fernandez kataluniarrak irabazi zuen eta, atzetik aurrera joanda, Eduard Prades, Eugeny Shalunov, Victor Cabedo, Pedro Merino eta David Belda izan dira azken urteotako irabazlea

Aurkezpenean aipatu zuten moduan, Eibarko Txirrindularitza Elkarteak omenaldia egingo die hainbeste urtetan taldeko aurpegia izan diren Jose Antonio Larrea eta Jose Aranberriri, egindako lan handia eskertzeko. Bihar afari-omenaldia egingo diete Krabelinen eta "etzi ere egongo da zeozer bientzat".

Eibartik zuzenean jarraitzeko hainbat aukera izango dira eta, baita, txirrindularien ahalegina txalotzeko ere. Irteera neutralizatua goizeko 08.55etan emango zaio probari eta Untzagatik Azitainera jaitsiko da tropela. Debarako bidea hartuko dute eta, behin Itziar eta Meagas gainak gaindituta, Zarautzetik berriro bueltan, Maltzagara joko dute, hortik Bergarara joan, Elgetako gaina pasatu eta, Elorriotik Ermurainoko bidea hartu, Areitio gaina pasatu eta **Eibarren sartzeko (12.10ak bueltan)**. Ixuara joango dira ondoren eta, behin San Miguel gainetik Elgoibarrera jaitsita, helmugaren bila jardungo dute txirrindulariek 164 kilometro eta erdiko ibilbideari amaiera emateko. Azken urteotan lez, Isasitik gorako azken aldapak ikusgarriago egingo du **etaparen amaiera (13.00ak inguruan)**, txirrindulariei azken benetako ahalegina eskatuko badie ere.

# Arrate: EUSKAL HERRIKO ITZULIAren ardatz

**Azken urteotako bideari jarraituta, aurten ere sei etapa izango ditu Euskal Herriko Itzuliak, bere 54. edizioan.** Lasterketa astelehenean, apirilaren 7an, hasiko da eta zapatuan, hilaren 12an amaituko. Lehenengo etapa Ordiziatik irten eta herri berean amaituko da, 153 kilometro bete eta gero. Bigarrenak Ordiziatik Urdazubira eramango du tropela, horretarako beste 155 kilometro osatu ondoren. Hirugarrenak Urdazubitik Gasteizerainoko bidea beteko du, beste 155 kilometrotan. Laugarrenak Euskadiko hiriburutik Arrateko gainera ekarriko ditu munduko txirrindulari onenak, 151 kilometrotan 1. mailako Ixua eta Usartzako gainak eta 2. mailako Asentzio, Karabieta eta Aiastiakoak gainditu ondoren. Bosgarrenak Untzagan izango du abiapuntua Markina-Xemeinera joateko, beste 153 kilometro egin ondoren. Zapatuan azken etapa jokatuko da Markina-Xemeinen, 26 kilometroko ibilbidean.

Gurera etorriz, egueneko etapan **Azitaindik sartuko da etapa Eibarren, 15.15ak bueltan** eta tarteko helmuga izango dute jokoan San Juan kalean. **16.00etan, gutxi gorabehera, Ermutik sartuko dira** txirrindulariak, Ixuaren bila joateko. Eta, azkenik, **Azitaindik (16.45etatik aurrera)** egingo dute berriro azken sarrera, tarteko helmuga jokatuko dute San Juan kalean eta Arrateko helmugaren bila joango dira. Hurrengo egunean, barixakuan, irteera izango da **Untzagatik, 13.05etan**, ondoren Calbetonetik behera egin eta, Arraguetatik igota, Ermurantz jotzeko.






# XXXXIII. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 6)




GARAILEA




MENDIA




TARTEKO HELMUGAK




23 URTETIK AZPIKO ONENA




SAIATUENAREN SARIA




LEHENENGO EUSKALDUNA

**TALDEKAKO SAILKAPENA:** Soraluce, S. Coop. / **DEBABARRENAKO ONENA:** Goritz Hornikuntzak, S.A.




**UDABERRI SARIA**
martxoak 2




**ABASCAL OROITZARREA**
martxoak 16




**OTXOA OROITZARREA**
apirilak 13




**SAN JUAN SARIA**
ekainak 15

**PEDAL EGUNA** (irailak 21): Birjiñape kafetegia

## LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- Radio Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Krabelin (Hotela-Jatetxea)
- Birjiñape Kafetegia
- Ketesa
- Casa Cantabria
- Casa Galicia
- Gestilan - Aholkularitza
- Marqués de Saka Ganadutegia
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Azitain Jatetxea
- Mapfre
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- Soraluce S. Coop.
- CDR-Bikes Eibar
- Andoni Retenaga (EBK-Eibarko Bizikleta)
- El Corte Inglés - Eibar
- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Asimair Konpresoreak
- Premier Bidaiak
- Guria Elektrizitatea
- Arkupe Gastro Pub

# Uni Encounter martitzenean abiatuko da



**Informatika eta teknologia berriekin interesatuta daudenek ezin dute galdu Uni Eibar-Ermuko Informatika sailak antolatuta apirilaren 8tik 11ra** bitartean egingo den Uni Encounter topaketa. Aurten hamargarrenez egingo diren jardunaldiak antolatzeko orduan Eibarko Udalarekin elkarlanean jardun dute eta gure inguruko "makers" edo ekintzaileei bultzada ematen ahalegindu dira antolatzaileak. Horregatik, ekintzaile horiek izango dira nagusi Ermuko Ongarai auzoan egingo diren jardueretan.

Jardunaldiak martitzenean abiatuko dira, "Maker Eguna" goiburuari jarraituta antolatutako ekitaldiekin: 12.00etatik 14.00-etara Maker Gunea egongo da martxan. Arratsaldean, 17.00etatik 19.00etara "Construye y utiliza tu impresora 3D" eskainiko du Bilbaomakers-eko Ivan Blascok eta, jarraian, 19.00etan hasiko da "Mekey-makey. Una herramienta que une el mundo fisico y virtual" izenburuari jarraituta egingo dute berba Diego Casadok (Deustuko unibertsitatea) eta Joseba Rojok (BioBX). Eta eguaztenean, 10.00etatik 14.00-etara "3D inpresorekin brainstorming-a" egingo da, Tumakerren eskutik.



Eguenean Antonio Martinen "Gestion de grandes proyectos informaticos" izenburukoarekin ekingo diote eguneko egitarauari, 12.30etan. Arratsaldeko 17.00etan, berriz, Nestor Lopezek eta Jon Alain Hinojosak "BitCoin. La cara y la cruz de la moneda virtual" izenburuko hitzaldia emango dute eta, jarraian, "En el futuro, tu sobras… o no?" izenburuari jarraituta egingo du berba eFaber-eko Svet Ivanchev-ek. Eta jardunaldiak agurtzeko, datorren barixakuan 16.00etatik 20.00etara "Desarrollo rapido de un videojuego. Iniciacion" emango du Pintxo Developer-eko Daniel Artamendik eta horrekin batera, ordu berean jokatuko da urteroko bideojoko txapelketa, "LOL", "Counter", "Fifa" eta "Call Of Duty: Ghost" jokoekin. Informazio gehiago nahi izanez gero, uniencounter.iesunibhi.com helbidean sartu eta bertan aurkituko duzue.

# Institutukoen `Egungo Islak´ Portalean ikusgai

**Gaur arratsaldean, 19.00etan inauguratuko dute "Egungo Islak" izenburuko erakusketa Portalean Ignazio Zuloagako ikasleek.** Urteroko moduan, 16 eta 19 urte bitarteko berrogeita hamar bat ikaslek orotariko lanak erakutsiko dituzte: marrazketa artistikoko lanak eta muralak, diseinuko arloko hainbat sorkuntza, ikus-entzunezkoak, argazki artistikoak eta beste hainbat. Gehienak institutuan batxilergo artistikoa ikasten duten gazteek egindakoak dira, baina beste batxilergoetako ikasleek egindako artelan batzuk ikusteko aukera ere izango da erakusketan. Azaldu dutenez, "erakusketara gerturatzen direnek horiek guztiak sentitu eta artearen mundu zabalarekin kontaktu zuzena edukitzeko aukera izango du. Gainera, gaurko inaugurazioa girotzeko, luntxaren inguruan sorpresaren bat edo beste egongo da. Beraz, arteaz gozatu eta mundu ikusgarri horretan murgildu nahi duen jende guztia ekitaldira gonbidatu nahi dugu". Gazteen artelanak apirilaren 27ra arte egongo dira ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara..









# Bizitza erdixa ...eta kitto!-ri eskinduta

Ondiok hogei urte bete barik zittuanian, 1993xan, zapaldu zeban Koldok lehenengoz ...eta kitto!-ko bulegua. Markeskua jauregixan zeguan orduan Elkartia, eta ilusiñoz betetako kazetaritzako ikasliak bertan eman zittuan lelengo pausuak kolaboratzaille moduan. Berakin batera beste ikasle asko: Ana, Ibon, Silbia, Mikel, Maite, Eba, Ane Miren... Arratsaldez unibertsitatera, eta goizez ...eta kitto!ra. Berak behin baiño gehixagotan aipatzen zeban moduan, "kazetari moduan ikasi biharreko guztiak bertan ikasi dittut: elkarrizketak prestau, artikuluak idatzi, telefonua hartziari beldurra kendu...". Kolaboratzaille moduan egittia tokau jakon lehelengo betebiharra, elkarte gastronomikuen gaiñeko artikuluak izan ziran. Eibarko soziedade guztiak bisitatu zittuan, grabadoria eta argazki kamaria soiñian hartuta. Koldok egin zeban bihar guzti horrek, Elkarte Gastronomikuen liburuan ikusi zeban argixa. Bost urte kolaboratzaille moduan jardun eta gero, 1998xan, langille moduan hasi izan biharrian, eta harrezkero zan ...etakitto!-ko koordinatzaille, elkartia eta aldizkarixaren arteko zubi sendua. "Agintzia" gustatzen ez jakon gidarixa, arazuen aurrian lankidiekin lasai berba egitteko gauza zan, eta ingurukuak motibatzen lehelengua. Bizitza erdixa emon dau, Koldok, ...eta kitto!-n biharrian, eta bera izan da azkeneko urtietan kanpora begirako gure aurpegixa.



## Txikitto! aldizkarixa

Euskalzalia, euskerarentzat bizi zana, euskeria danontzat zala uste zebana eta egitten genduan dana euskeraren alde egin bihar genduala aldarrikatzen zebana zan Koldo. Euskeraren transmisiñuan inguruan be bazekan kezkia, eta ardura horrek bultzatuta, Txikitto! umeentzako hillabetekarixa jarri zeban martxan 1996. urtian. Umiek hilero euskerazko aldizkarixa jasotzia eta hori lantziari garrantzi haundixa emoten zetsan Koldok. Eibarko ikastetxiekin alkarlan estuan jardun izan zeban beti.

## Sasoi barrixetara egokittu biharra

Teknologixa barrixak be beti zittuan buruan bueltaka. Aldizkarixa interneten egon bihar zala argi euki zeban hasiera hasieratik, eta gogotik egin zeban lan hori lortu ahal izateko. "Web orrixa ezin dogu ahaztu, elikatu egin bihar dogu behiñ eta berriro, euskarri sendua dakagu esku artian eta horrek ematen deskun bapatekotasuna aprobetxau bihar dogu", beran berbak. Sare sozialetan be oso inplikauta egon zan, parte-hartzaille eta jarraitzaille sutsua beti.

Debabarrenan eskualdeko proiektu komunikatibo bat sortzeko ahalegiñian be buru-belarri jardun zeban. Nahiz eta azkenian ez zan aurrera atara, asmo eta gogo guztia jarri zittuan holako proiektu bat egiñ ala ez aztertzeko egin ziran billera guztietan, eta Hekimen euskal hedabideen elkartean be Koldo izan da ...eta kitto!ren ordezkarixa. Eibarren ez eze, eskualdian eta baitta Euskal Herrixan be topauko dogu Koldoren arrastua. Elkarteko ordezkari izan da hainbat erakundetan, bereziki Euskaltzaleen Topagunian, bertoko zuzendaritza batzordeko kide izan zan-eta, bi urte inguruz.

Geldi egotekua ez zan: bazkide kanpaiña martxan jarri bihar zala, boletuak edo kamisetak kalian saldu bihar zirala, babestailliak billatu bihar zirala, esatari lanak... Edozer gauza egitteko prest beti, hainbeste maitte zeban euskeria alor guztietan zaindu egin bihar zala-eta, eziñ ezetzik emon. Bihargiñ eta lankide fiña, baiña hori baiño gehixago lagun bat galdu dau ...eta kitto!-k. Ez da gehixago gure buleguan sartuko, baiña berak egindako lanak hor jarraittuko dau, eta hainbeste maitattu zeban elkartian gaozenok, hutsunia nekez beteko dogun arren, lagatako arrastuari jarraittuko detsagun zalantzarik ez euki.

## Agur Koldo, ...eta kitto!ren zutabe eta bidelagun

Koldo aspaldittik ezagutu arren, oiñ lau urte, zuzendaritza-batzordian hastian, izan genduan gertuko lehenengo harremana. Aurretik ...eta kitto! Euskara alkartian bazkide bai, baina orduan sentitu nitzan eta ordutik sentitzen naiz kide, neurri handi batian berari esker izan zan hori.

Hiru urte jardut dut presidente-karguan, hasiera hasieratik eskuz esku berakin. Hamaika arazo, buruhauste, proiektu izan dittugu denpora gitxixan. Orduak eta orduak jardun doguz eztabaidan. Berba asko egin dogu, danetaz, bat gentozen batzuetan, beste batzuetan ez. Halanda be, beti hartu dau kontuan neria eta bestion iritzixa, ontzat emoten zeban gehixenguan ekarpena, eta bere asmua aldatu bihar bazeban be, hari heltzen zetsan lanari ekiteko.

Garai gogorrak bizi izan doguz alkarrekin. Gau eta egun hausnartzen proiektu berriez, elkarte eta aldizkarixan egoeraz. Ez dira eta sasoi errazak ...eta kitto!rentzat. Ate joka ibilli da handik eta hemendik, goizetik gabera, elkartiandako baliabide eta laguntza billa eten barik. Ardurakin beti, arduratsu bera beti, elkartiakin arduratsu, inguruko kide eta lagunekin arduratsu.

Lantaldian agindu ez, lantaldia zuzentzen asmatu zeban berak, bera izan da urte morduan ...eta kitton!n lemazain.

Kaixo, presi esaten zestan askotan, umoretsu zeguan seiñale. Egunak argittu ez arren, luze iraungo dau bere itzalak.

**IGONE LAMARAIN**
**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN PRESIDENTE-OHIA**

## Koldo bidelagunari

Eibar euskalduntzea helburu, gazte-gaztea zela buru belarri ekin zion ...eta Kitto!-n lan egiteari, bere bizitzan ardatz izango zen elkartean bidea eginez.

Euskalgintzan erreferente garbia izan da Koldo, ez bakarrik Eibarren, baita Euskal Herrian ere, Topagunean edo azken aldian Hekimenen egindako lanagatik besteak beste.

Kazetaritza jardunetik abiatu eta normalizazioarekin lotutako zereginetan bete-betean murgilduta ibili da urte hauetan guztietan, elkartearen barru-barrutik lan eginez.

Ezaguna da Koldoren gaitasuna, ingurukoen ekarpenak kontuan hartuz, bide eta egitasmo berriak jorratzekoa. Protagonismorik gabe, berrikuntza zalea, garbi zuen aurrera egitekotan hori zela ezinbestean garatu beharreko ildoa. Eibarko Euskalgintza taldeak, Koldok euskararen alde egindako lan itzela eskertu eta aldarrikatu nahi du eta, bide batez, bere familia eta lagunekin bat egin.

**EIBARKO EUSKALGINTZA TALDEA**



## Bihargin fiña

Aldizkariko erredaktore ziñala, gauza barriren bat egitteko proposatzen jatzunian, zihero argitzen jatzuzen begixak. Zabal-zabalik jartzen zenduazen. Beti prest. Haundixa zan lanerako erakusten zenduan interesa, gogua. Hárek bai makaleko enbajadak, hárek: batian gure aurreikuspen faltiagaittik betelanen bat asmatzia, bestian alkarte gastronomikuetan alkarrizketak egittia, hurrenguan liburuak maketatzia... Beti genkan prixia eta baliabidiak beti ziran eskasak. Zuk, berriz, interesa eta gogua beti erakusten zenduan.

Gero, koordinatzaille arduria hartu zenduan. Ilusiñoz hasi, eta proiektuan buru-belarri inplikau ziñan. Ogibide baiño gehixago, bizimodu bihurtu zan zuretako ...eta kitto!. Jarduera dan-danetan egoten ziñan beti lanian. Eta biharretik kanpo, beti lana buruan.

Azken urtiotan, oso txukun eta duiñ eutsi detsazue proiektu euskaltzale honi, eta herrixan sustrai senduak zabaltzia lortu dozue, zailttasunak eta murrizketak ikaragarrixak izan arren. Lan profesionala eta bazkidiena tamaiñan uztartu dittuzue, alkartiak hasieran planteautako bidiari jarraittuta. Gatxa da, baiña zubixak eraikitzeko egin dozuen ahalegiña txalotzekua da. Merittu horren zati haundi bat zeuria da, ...eta kitto!-ko famelixan lan garrantzitsua egin dozu ta.

Lastimia baiña: agur esan barik juan zara. Hutsune haundixa laga dozu alkartian, euskalgintzan eta ezagutzen zinttugun guztion bihotzetan. Bizkorregi juan zara, Koldo. Oindiok zeure begixak argitzeko moduko hainbeste gauza dagoz egitteko…

Milla esker.

**OIER NARBAIZA**

## Bi mezu erantzun gabe

Koldo Mitxelena Hekimenen sorreran parte hartze aktibo izan zuen kide bezala gogoratzen dugu. Bileretan esku hartzen, batzarretan agertzen eta solaskidetza gertua eta berehalakoa eskaintzen zigun laguna. Bere aldizkaria —...eta kitto!—, bere kultur elkartea eta bere proiektua oso garbi zeukan eta konpromiso handiz defenditzen zuen euskaltzale gisa gogoratzen dugu. Aldizkariaren urteurreneko ekitaldira gonbidatu gintuen, Eibarko udaletxean, eta han antzeman genion nolako gertutasunarekin eta dedikazioarekin bizi zuen elkartearekin eta aldizkariarekin zerikusirik zuen oro. Irribarre batekin gogoratzen dugu.

Bi mezu utzi zizkigun erantzun gabe. Publizitatearekin eta Hekimeneko proiektu batekin lotutako bi mezu ziren, apirilaren 1eko data dutenak. Arraroa egin zitzaigun erantzunik ez jasotzea, hain zen eta bat-batekoa bere prestasuna, korreo baten aurrean zein dei baten aurrean. Handik gutxira izan genuen bere heriotzaren berri.

...eta kitto! aldizkariak eta proiektuak aurrera egingo du bera gabe, baina berarekin lan egin dutenek ez dute berehalakoan ahaztuko.

**IBAN ARANTZABAL, IBAN ARREGI, ALBERTO BARANDIARAN**
HEKIMENEKO ZUZENDARITZAKIDEAK



## Koldoren ametsa betetzeko konpromisoa

Eibar euskalduna amesten zuen Koldok. Gazte gaztetatik eta kittoko kolaboratzaile izan zen eta badira 15 urte euskara elkarteko eta aldizkariko koordinazioaren ardura hartu zuela. Langile nekaezina, hainbat izan dira euskararen erabileraren alde martxan jartzeko bere burutik irten diren ideia eta egitasmoak. ...eta kitto!-ko beste langile eta zuzendaritzako kideekin batera, euskaratik eta euskaraz, 365 egun euskaraz bizitzearen alde lan egin du Koldok.

Eibarko EH Bildutik, eta berau osatzen dugun lau alderdien izenean, Koldok urte luze hauetan zehar egindako lana goraipatu eta senideei gure doluminak helarazi nahi dizkiegu. Koldok amets bat zuen eta gure konpromisoa da, amets hori lortze bidean, gogor eta tinko lan egitea. *Agur eta ohore*

**EH BILDU**

## Kaso egingo dixat, Koldo!

Ainarak deittu jak, Koldo. Bai, zuena dan eta gurian biharrian dihardUan Ainara Argoitiak. Zerbait idazteko eskatu jak. Alkarrekin lankidetzan sarri jardun dogula, eta ia animatuko naizen hiri zeozer idaztera. Baietz esan jauat.

Ordenadoria piztu, begixak itxi, eta Eibarko Koldo noiz ezagutu najuan pentsatzen hasi nok. Baiña atzamarrak mobittu eziñik nagok. Ez nok akordatzen noiz izan naban estraiñekoz hire berri. Debako Zuhatzakuen lokala ikusten juat urruti-urrutixan; eta baitta Mendaroko udaletxian sasoi batian egitten genduzen batzarrak ere, borroso samar bada ere. Baiña, batez ere, baillarako komunikazio-proiektuarekin hasi giñaneko irudixak datuaz nere akordura. Itzain lanetan ikusten haut, taldiari tiraka, herrixetako komunikazio-proiektuak baillarara eruan nahixan. Ez giñan nahi genduan tokira allegau, baiña ... eta kitto!-n benetako lankide bat naukala konturatu nitzuan, eta hori asko dok. Baillarako komunikazio-proiektuari berriz heltzen badiogu, kaso egingo dixat. Azaldu, ahal badok, eta, bestela, idatzi edo deittuko dixat gure berri emateko.

Ezer esan gabe alde egin diguk, Koldo. Biharbada hainbeste estimatzen duan Fernandorengana juan haiz, eta, egixari zor, harengana juateko ez daukak guri baimena eskatu biharrik. Poztuko dok hi ikustian. Bueno, azkarregi juan haizela esango dik, baiña besarkada bat eman eta malkuak sikatu ondoren, hiretzat bereziki gordeta daukan proiekturen bat erakutsiko dik. Ez harrittu proiektua zuek eta gu hartu-emanian jartzeko baldin bada.

Triste ikusten juat jendia, Koldo, lur-jota eta negarrez, baiña ez hadi arduratu, eutsiko diogu eta. Hik hainbeste urtian emandakua bidelagun hartu eta aurrera egingo juagu gure Herrixa euskalduna izateko ahalegiñian. Besarkada bat eta nahi duan arte!

**IMANOL LARRAÑAGA**
ELGOIBARKO IZARRA EUSKALTZALEON TOPAGUNEA



# KOLDO MITXELENA ZUMARAN

*2014ko apirilaren 1ean hil zen, 39 urterekin*

FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

*Bi mila eta hamalauko*
*astearte arratsalde*
*polita da apirila*
*dator suabe- suabe.*
*Udaberria helduta*
*guztia daukagu alde,*
*baina Maiderrek esan dit:*
*"Koldok egin digu alde".*
*Aizu, Koldo zer zabiltza?*
*Hau broma da zaude-zaude!*
*Maite zaitugun guztiok*
*ulertu ezinik gaude,*
*zergatik alde egin duzun*
*guri agur esan gabe. (BER)*

*…eta kitto!n ezagutu*
*genuen elkar lehengoan,*
*eta lan egin gogotsu*
*hango erredakzioan.*
*Batera aritu ginen*
*Taupaden Hotsa saioan,*
*Radio Estudio irratian*
*beti euskara ahoan.*
*Behin elkarrizketatu bat*
*ez zen irratira joan,*
*urduri erori ginen*
*barre atake eroan.*
*Nik oroitzapen horrekin*
*izango zaitut gogoan. (BER)*

*Maider, Ainara, Marisol*
*Ainhoa, Haizea, Ihintza,*
*Joselu, Silbia, Itziar,*
*gaur zerua dago grisa.*
*Hiru Ana, Ane Miren,*
*Esther, Ibon, egun hitsa.*
*Oier, Maite, Ane, Belen,*
*Burua makur gabiltza.*
*Familiari besarkada*
*handi-handia, bortitza.*
*Denon partez, Koldo, agur.*
*Hau baldin bada bizitza,*
*aprobetxatu beharko*
*dugu momentu bakoitza. (BER)*

**MIKEL ARRILLAGA**
DOINUA: ETA–REN SU–ETENETIK

## Sinesten zuenaren alde lan egindakoa

Atsekabe handiarekin jaso dugu Koldo Mitxelenaren heriotzaren berria. Eibartar gazte inplikatua, sinesten zuenaren alde lan egindakoa eta euskararen ekintzaile nekaezina joan zaigu, gure artean hutsune handia utzita.

Asko diogu Koldori eskertzeko: …eta kitto!-rekin izan dugun lankidetzan bera izan dugu beti gidari, aholkulari eta laguntzaile, eta berak jorratutako bidea aberasgarri izan zaigu beti. Erreferente izan dugu euskararen eta euskal kulturaren aldeko jardunean, bihotz eta buru jarri du bere bizitzan Eibarren euskarak aurrera egin dezan, eta bere partaidetza ezinbestekoa izan da …eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik bideratutako ekintza guztietan.

Bera gogoan izanda jarraituko dugu guk ere euskararen aldeko lanean, eta gure esku dagoena egingo dugu Eibarren euskarak eta euskal kulturak bizirik eta indarrarekin jarrai dezan, hori da-eta Koldori egin diezaiokegun omenaldirik onena.

Eskerrik asko, Koldo, izan zarena izateagatik eta Eibarko euskarari eta kulturari egindako ekarpen guztiengatik. Gure doluminik beroenak familiari eta gertuko guztiei.

**MARISABEL ALBIZU**
ALDATZE IKASTETXEA

## Agur, lagun

Zure galera ikaragarrizko kolpea izan da gu guztiontzat, baina beti izango zaitugu gure bihotz eta pentsamenduetan. Jaso egizu ia beti entzun zizutenen eta beti entzuten zenigunon besarkada estua. **KUADRILAKO LAGUNAK**

## Bere begiradak harrapatzen nau

Igor Aldalurrek deitu zidan eta nik Carmen Larrañagari. Taldeko laguneei ere kontatu nien teknologiaz baliaturik eta danei abisua eman eta gero, "ezin da izan" pentsatzen geratu nintzen. Ezinezkoa ere Fernando Muniozguren ere burura ez etortzea, nola ahaztu euren arteko konplizitatea, konpartitzen zituzten erronkak, kezkak, ametsak, ardurak … aurrera ateratzeko.

...eta kitto! aldizkariaren 25. urteurrena udaletxean ospatu genuela, azpimarratu zen Euskara Elkartea proiektu pertsonaltzat zuela Fernandok. Koldoren kasuan ere, proiektuak eta enpresak pertsonak garela ikasi dugun arren, zaila suertatzen da "… eta kitto" ulertzeko eta sentitzeko berak zuen kemena eta goxotasuna toki askotan topatzea.

Nire kasuan, Koldo burura ekarri eta bere begiradak harrapatzen nau. Begiak ixteko zuen modua; ezagutzen dudan beste jende guztiak mugimendu ikustezin batez mugitzen dituelako betazalak, mugimendu azkarrez jasotzen eta jeisten. Koldok ez. Koldok garbitu egiten zuen begirada, zerbait berria espero zuela ematen zuen begiak zabaltzen zituenean. Irrifarreak, eskuek, buruak… mugimendu horrekin bat egiten zuten bizitza konpartitzeko zuen modu berezi horretan.

Ezinezkoa bere etxekoen mina nolakoa izango den pentsatzera ausartzea ere, baina hasi naizen moduan amaituko dut, esanez Udala osatzen dugun lagun guztiok ere tristurak asaldatuta gaudela gaur. Koldok kolore guztietako lagunak batzeko aukera eman digu urte hauetan guztietan, eta hemendik aurrera ere gurekin izango ditugu bera eta euskara eta "… eta kitto" ren alde, bai begiak zabalik, bai ametsetan, berak eginiko ahalegin guztiak.

**MARIAJOSE TELLERIA**

# AGUR KOLDO, LAGUN

*Beti izango gaituzu gure*
*bihotz eta pentsamenduetan*
*LAGUNAK*



## Lemazaiña

Eta kitto alkartia eta aldizkarixa alkarlanian sortutakuak dira. Halanda be, talde guztietan lez, gurian be batzuk gehixago nabarmendu dira: ezin ahaztu dana martxan ipiñi eban Fernando. Baten batek kapitaiña zala esan eban eta ez jakon arrazoia falta. Kapitain aparta zan aldetik, tostartekuak jirau eta arraunian ipintzeko ahalmen itzela ekan Fernandok. Hórretako bat, oin dala urte mordua ezagutu neban. Udaletxeko gela batian billeran gengozela han agertu zan gazte kuadrilla bat. Tartian Koldo zeguan. Berihala nabarmendu zan, izan be berak egin eban berba danen izenian. Gauzak antolatzeko eta gizataldiak gobernatzeko ekarren jasa urte batzuk geruago nabarmendu zan, Euskal Telebistan. Azken orduko barri batek sekulako anabasa sortu eban albistegietan. Oillotokixa zirudixana, baiña, berihala baretu zan eta jefe guztiak harrittuta geratu ziran: bekarixo aillegau barrixa (Koldo, Eibarkua) danak firmes ipiñi eta nahaste-borrastia konpontzeko gauza izan zan. Abildade horrek asko lagundu eskun geruago …eta kittora etorri ziran sasoi txarretan. Fernando kapitaiña hil zanian, ordurako lemazaiña zan Koldok lekua hartu eta ontzixa aurrera atara eban. Orain berriro geratu gara gidari barik, baiña kapitain-lemazaiñak markauta laga desku bidia: hagiñak estutu eta aurrera segiduko dogu arraunian. Zor deuagu, Koldo.

JUANAN ARGOITIA

## Euskararekiko maitasuna biziki sentitzeko

Urteetan zehar Eibarren euskararen errepidea jarraitu dugunontzat, bide horren zati handi bat Koldorekin batera egitea ezinbestekoa izan da.

Bidean zehar bere gertutasuna, lanerako grina, laguntza eta euskararekiko maitasuna biziki sentitzeko aukera izan dugu.

Nahiz eta fisikoki gurekin egon ez, denon artean hasitako ibilbideari gogotsu ekingo diogu.

Bidaia luze honetan Eibar eta euskararen alde egindako lan guztiarengatik La Salle Hezkuntz Komunitateak bihotz-bihotzez eskerrak ematen dizkizu.

LA SALLE IHEZKUNTZ KOMUNITATEA

## Gurekiko izan duzun begirunea eskertuz

Ez dira bi aste igaro Eibarko kaleetan elkarrekin topo egin genuenetik. Agurtu eta "hurrengora arte!" esan genion elkarri. Ez da ordea hurrengo aldirik izango.

Izango da, lerro hauek, zure lana azpimarratzeko baliatuko duenik. Ongi mereziak dituzu. Nik, halaber, biziki eskertu nahiko nizuke gurekiko, ama eta biokiko, izan duzun begirunea eta adeitasuna, gurekin gogoratu izana urte hauetan guztietan. Asko dugu zuri eskertzeko, eta horretan ginela joan zara gure ondotik. Gogoan geratuko zaizkigu ordea, omenaldietako eta azken grabazioko barre eta algarak, kamara aurreko irribarre lotsati eta konplizeak.

"Agur barkuko kapitainari" genioen ...eta kitto!-ko ale berezi batean, eta oraindik zortzi urte igaro ez direnean, berriz diogu. Baina, zuregatik, zuengatik, guregatik, ez dugu barkua hondoratzen utziko.

Eskerrik asko.

AINHIZE MUNIOZGUREN IBARGUREN

## Habira itzultzen diren txoriak

Arraroa bada ere, badira zuhaitzean eskegitako habitik lurrera erori eta milaka kilometro hegalean eman ostean, berriro ere, behinola erori ziren zuhaitzera itzultzen diren txoriak. Eta arraroa bada ere, horrela gogoratzen dugu J.A. Mogel ikastolatik Koldo Mitxelena: Habitik jasotako bazka, berriz ere, txito berriei bueltatu beharrean aurkitzen den txoriaren gisara. Koldok ikastolatik hartutako euskara izan zuen bizitzaren bidaide eta konpromiso; eta horrela itzultzen zion iturburuari errekastora isuritako ura ostera ere. Hemendik, J.A. Mogel ikastola osatzen dugun komunitatetik mila esker Koldo, hizkuntzaren transmisioan horren zubigile arduratsua izanagatik.

*Sarritan izan da euskara*
*Elkar bildu gaituana*
*Asmo beretsuak eta*
*Lanerako prestu dana.*
*Egunan ondoren dator,*
*jarraian beltza dan gaua,*
*bizitza loratan zendun*
*hau da jausi zaigun zama,*
*gaur zuk alde eginana.*
*Animatzen bizi zara*
*Nahiz eta zaren joana,*
*Guztiokin partekatzen*
*Zeuk ere jaso zenuana*
*Saminezko malkotatik*
*Hauxe da agintzen dudana:*
*Prest gaituzu, Koldo lagun*
*Jarraitzeko zeure lana.*

J.A. MOGEL IKASTOLA

# KOLDO MITXELENA ZUMARAN



*Zu joan zara, baina,*
*zureganako gure maitasuna ez.*
*Ez ditugu inoiz ahaztuko izan*
*dituzun ilusioa eta bizipoza.*

ZURE FAMILIA



## Sostoa Abesbatzak Koldori esker onez eta maitasunez

Orain dela hogei urte eskas, 1994ko urtarrilaren bueltan, Sostoa Abesbatza zorionekoa izan zen, bertara ailegatu zinetelako dozena bat abeslari berri. Haien artean zu zeu, Koldo. Gazte gaztea zinen orduan, hogei bat urtekoa, eta berehala integratu zinen tenoreetan. Alaia, lagunkorra, ahots finekoa, teknika ikasteko prest, parte hartzailea eta inplikatua. Zer gehiago eska daiteke koru batean? Horregatik, handik gutxira zuzendaritza batzorderako aukeratua izan zinen.

Urte on et emenkorrak gozatu zenituen koruan lagunak egiten, abesten eta bidaiatzen (Vienara, Parisera, Erromara). Baina halako batean, ...eta kitto! euskara elkartean hartutako ardurengatik utzi behar izan zenion entsaioetara etortzeari.

Utzi, ordea, ez gintuzun inoiz utzi. Beti izan zara etxekoa harreman estuko laguntzailea baino. Sostoak 25 urteurrena ospatu zuenean, hantxe egon zinen gurekin kantuan eta bazkarian. Urteurren hori dela eta, Jose Luis Goikoetxeak liburu bat idatzi zuen Sostoaren historia azaltzen eta zu arduratu zinen liburu horren maketazioaz, euskal testuaz eta inprimatzeaz. Eskatu dizugun bakoitzean argazki erreportajeak egin dizkiguzu, baita gure kontzertuen aurkezpenak ere. Igande honetan Elgoibarren dugun kontzerturako zurekin kontatzen genuen. Ezin izango duzu, ordea. Hala ere, gure bihotzean egongo zara beti.

**SOSTOA ABESBATZA**




*Sostoarekin egindako irteera bateko irudian, orain dela urte batzuk.*



## Izen aproposa ipini zetsuen zure lanerako

Klasetik urtetzerakuan, danok eitten dogun eta hain normal bihurtu dan keinua egin neban: eskua poltsikuan sartu eta telefonua atara. Barruraino sartu jaku ohitturia eta ezin aguantau... Mezuak begiratu eta interneteko Eibartarrak posta zerrendara Luistxo Fernandezek bialdutako mezua irakorri neban: Koldo Mitxelena hil da. Momentu baten, martitzenian inglesen iñuzente eguna zala etorri jatan burura. "Zu bai iñuzentia" esan zestan zeozek barru-barrutik.

Egixa esan, izen aproposa ipini zetsuen zure lanerako, Koldó. Batek baino gehixaok esango zetsun, jakina, ez naiz ni etorri hamen ezer deskubritzera. Euskerian inguruan gora eta behera, laguntzen, egitten, biharrian, beti horretan. Beti eta kittori lotuta ezautu izan zinttudan. Azkenaldixan gainera arduratuta. Eta asko. Batez be diru-kontuengaittik, hainbeste urtian zihar aurrera ataratako proiektuan nundik norakuak zuzendu nahixan. Ondiokan buruan dakat zure irudixa, lankidiokin buleguan, edo aldameneko tabernan, edo eta kittok antolatutako hainbat eta hainbat ekintzetakoren baten. Eta seguru nago asko kostatuko jatala eta jakula irudi hori burutik kentzia. Zela edo hala, gure parte be izan zara-ta.

...eta kitto! aldizkarixan, alkartian eta Eibarko euskalgintza osuan zulotxo bat laga dozu baina, trankil egon, beteko dogu. Xenpelarrek esan zeban moduan "Jaioko dira berriak!"

**MIKEL LARREATEGI**
**EIBARKO KLUB DEPORTIBOA**

**KOLDO MITXELENA**
**(Topagunean zuzendaritzakide, 2001-2003)**

***Euskaltzale, lagun, bidaide bizirik gugan***

euskaltzaleen topagunea

## Elkartiaren ikur nagusixa

Aurtengo udan zortzi urte beteko dira Fernando Muniozgurenek laga ginttuanetik. "Agur barkoko kapitanari" izan zan etakittok ataratako titularra. Euskalgintzan biharrian ibili garanok ondo dakigu zelako garrantzixa euki zeban Fernando kapitanak hainbat proiektutan, Eibarren ez ezik, baitta Euskal Herri osuan be. Badihardugu Euskera Elkartia sortzeko bultzatzaile nagusixa izan genduan, eta zer esanik ez ...etakitto! elkartia sortu eta indartzeko orduan. Aurten 25 urte bete dittu ...etakittok. 25 urte Eibar euskalduntzeko jo-ta-ke lanian... eta sasoi guzti honetan, ixa-ixa hasieratik, hantxe egon da Koldo. Lehenengo Fernandokin alkarrekin biharrian; azkenengo urtietan, proiektuan gidari eta lemazain. Eibartar guztion elkartia dan horren ikur nagusixa izan da, aldizkarixa ardatz hartuta, Eibarren euskeria bultzatzeko bideratu diran beste hainbeste proiektu eta ekimen bultzatu dittuana. Eibarko euskalgintzak azkenengo 25 urtiotan emondako urratsak eta egindako bidia ez ziran bardinak izango, Koldok egindako ekarpena barik. Badihardugu Elkartiak egin dittuan proiektuetan be hantxe izan dogu laguntzeko prest. Datozen urtiotan be, ziur nago, Eibarko euskalgintzan eta kulturgintzan egingo diran proiektuetan, hantxe izango da Koldok lagatako aztarrena, guztiontzat bidelagun. ...etakittok kapitana eta lemazaina galdu dittu denbora laburrian; animorik eta indarrik haundixena tripulaziño osuari.

**ASIER SARASUA**
**BADIHARDUGU ELKARTEA**

## Koldori omenalditxoa

Arrate Kultur elkartea osatzen dugun kide guztiok bat egin nahi dugu …eta kitto! aldizkari eta elkarteko kideekin eta Koldoren familiarekin bizi duzuen momentu latza dela eta. Une hauetan hitzek ez dute asko balio izaten baina Koldok hauen bitartez gure agurra merezi duela uste dugulako, hona hemen gure omenalditxoa:

*Udaberrian patu okerrak*
*deiadar sakon ozena*
*sasoi betean zengozen eta*
*ez deritzogu zuzena*
*aittatzekua, lagun, zenduan*
*lanerako ahalmena*
*kolpe honekin geratu jaku*
*ezagutzeke onena*
*orain behar da pasatu bizkor*
*une gogor ta gatzena*
*...eta kitto!ko kideen mina*
*etxekuen etsipena*
*zure barria ez da biztuko*
*biziko da oroimena*
*gure aldetik jasoizu Koldo*
*merezi dozun omena*

**ARRATE KULTUR ELKARTEA**

## Gurekin gelditzen da

Arraroa egingo zaigu bihar, Euskaltzaleen Topagunearen Batzar Nagusian Koldo Mitxelena ez ikustea. Urteroko parte-hartzaile seguruetako bat zen, ...eta kitto!ko kideekin batera. Topagunearen sorreratik bertatik …eta kitto!-k ekarpen handia egin dio federazioari eta Koldo izan da neurri handian horren eragile.
Kolpe latza izan zen asteartekoa, oraindik ere sinesten zaila, eta burutik ezin kendurik ditugu bere senideak eta guretzat erreferentziazko ekipoa, Marisol, Ainara, Maider, Jose Luis, hau da, …eta kitto!-ko ekipoa, elkartean eta aldizkarian urte luzeko ekipo trinkoa.

Koldo Topaguneko zuzendaritzako kide izan zen bi urtez, 2001 eta 2003 urteen artean. Hastapeneko urteak ziren, eta elkarte batzuk -...eta kitto! tarteko- ahalegin handia egin zuten eta asko eman zioten euskaltzaleon mugimenduari.

Konpromisoa eta euskaltzaletasuna hitzei lotuta gogoratuko dugu Koldo, elkarteari eta aldizkariari emana. Desorduetan …eta kitto! edo Drogetteniturri aldizkarien edukietan eta maketazio lanetan murgilduta, edota han-hemenka egindako bilera, mintegi eta batzarretan beti presente.

Bi oroitzapen nagusi geratzen zaizkigu:
1) Koldok beti gogoan zuen erreferentzia argia, Fernando Muniozgurenena.
2) Eta Urkizuko bulegoan Koldorekin pasatako orduak, berdin aldizkariari, Topaguneari, eskualdeko komunikazio proiektuari, aisialdiari edo beste hainbeste gairi buruzko batzarretan. Baita dorre azpiko tabernan hartutako kafeak ere.

Ez adiorik, Koldo. Gurekin gelditzen zara.

**EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA**

KOLDO MITXELENA

*Zure irribarrea eta zintzotasuna beti gogoan izango dugu*

**GERTU INPRIMATEGIKO LAGUNAK**





## Okurridu jatzunaren zain gagoz, Koldo!

Eh, Koldo, eh!! Zuk jakingo dozu, baiña ez zoiaz urriñegi? Planifikaziñuetan be, ez dakigu nondik nora doian azken egunotakua! Aste Santurako zure planen partaide egin gaittuzu, zure amaren urtebetetzia dala-eta zuk kontauta jabetu gara oparittuko detsazunaz, bezperako irribarre zabal eta iñoiz baiño naturalaguan igarri dogu lasaitzen gaittuala, jakin be badakigu gerturatzen doian hauteskunde eguna kubritzeko taldia osatu bihar dogula... Halakuak... bazkaltzeko orduan gurasuen etxetik pasatu ez zaran arte. Disimuluan ibilliko zara akaso, ia bestiok zelan erreakzionatzen dogun. Ez dakagu aukera haundirik. Egunerokuari ohittuta, atzo asko nabarittu genduan gure artera be agertu ez ziñanian. Halanda be, zure izena iñoiz baiño gehixaguetan izan da danon ahuetan. Hainbeste interesatzen jatzuzen Interneteko kontuetan be, bisita marka guztiak gaindittu dozuz oinguan. Hau da interesa piztu dozuna!

Baiña guri, benetan, gatxa egitten jaku! Hankamotz geratu gara, umezurtz... Konfiantza haundixa emoten deskuzu, eta eskertzen dogu... ez dakizu zuk zenbat! Beti hor zaittugu, baldintzarik ipiñi gabe, erreferente bihurtzeraiño (bai guretzat, eta baitta gure ordezkaritza zure eskuetan lagatzeko orduan be). Jakizu lasaittasuna eskintzen deskuzula edonora juateko orduan, zuk kanporatzen dozun patxada dohai horrekin. Berba egitteko be erraztasuna dozu eta plaza-gizon ikutu horrek hartu-emonak lantzerakuan eta billeretarako oso lagungarrixak egitten jakuz. Lujua da ardurak zure esku lagatzia, badakigu-eta amaieraraiño inplikatuko zarala. Edozein mesede eskatuta be, badakigu zelan erantzungo deskuzun; hori zuk zeuk lehenago zure burua ez badozu eskaintzen. Txarto ohittu gaittuzula? Erregular, gustoko gauzetara edonor ohitzen da!

Horregaittik, ez dogu oso ondo ulertzen azken orduotakua. Detallistia zara, eta baitta ezustiak emon zalia be: zenbat disfrutatzen dozun jentiari oparixak egitterakuan! Zentzua hartu biharko detsagu oin prestau deskuzunari, beria izango dau-eta; siñistuizu horren billa gabizela, ez da erosotasun kontua. Baiña zure lagunak izatiaren pagotxa eskindu deskuzun honetan ez gaittuzu, ba, lagako misterio hau argittu barik, eh? Gu desiatzen gagoz, “alegre biribilketan” bada be, halako batian sortu dozun korapillo hori askatzeko. Badakigulako ondo esplikatuko deskuzula guztia. Beste behin be, barre artian amaitzeko. Barriak, bai, munduko guztiak! Eta ez dira azkenak izango!

**LANEKO FAMELIXIA**

## Eskerrik asko, Koldo

Burua astun eta malkua begixetan behera. Zure fotografixiari begira nago, siñistu eziñik artian. Zelan leike, baiña! Oiñeztarrixak jota moduan gare danok, gogortuta, zer egin ez dakigula. Haundixa da laga dozun hutsunia, Koldo, nabarmenegixa. Elkartiari emonda bizi izan zara, banderatzat beti euskeria hartuta, eta gorputz-arimia saiatu zara herrixa euskaldunago egitteko ahalegiñian. Bizi zenduan elkartia, eta kanpuan be igarritta zeguazen. Abizena be halakotxia jarri zetsuen baillarako lagunak: Koldo Kitto.

Zenbat batzar egin ete genduazen Elgoibarren baillarako proiektu komunikatibua bideragarri ete zan aztertzeko. Zenbat neke eta buruhauste, eta zenbat momentu ahaztezin. *Kitapenasak*, esaterako. Halaxe esaten gentsen Andonegik eta hirurok otordu baten bueltan egitten genduazen batzarrei, gehixenetan, euskalgintzan errimia dan moduan, diru-kontuez berbetan hasten genduazelako eta gure tunante sasoiko kontuez berbetan amaittu. Martitzen gabian bertan idatzi zestazun bazala beste bat egitteko ordua, eta seguru nago izango zenduala orduan be zeozer buruan, webgunia berritu nahixa-edo, baiña nik estuegi nenbillela erantzun netsun, makiña-erreminttiaren gaiñeko reportajiakin itsututa. ‘Ez dakat dudarik ondo egingo dozula, Argoitia’ esan zestazun, larri igartzen ninduzun aldiro moduan. Eta hau paraderua, Koldo. Nahi neuke gaur behintzat gustora geldittu, baiña berbak josi ezinda nabil. Asko da esan barik laga dodana, baiña motzian errendittu biharra dakat.

Kontutxo bat: badakitt atzo juan ez baziña, gaur zure beste dei bat izango nebala Luken mejorau ete dan galdezka, eta egon trankil, hasi dalako hau barriro okerkerixak egitten. Gure semiak bere izena idazten ikasten dabenerako, webgunia berrittuta izango dogu, koloretan izango da Txikitto, eta biharbada, baillaran be izango dogu zerbaitt martxan, eta esango detsat hórrek danak eta gehixago be egin dittuala …eta kittok, horren estimau dittuan Pirritx eta Porrotx pailazuen emanaldixak antolatziaz parte. Zuk hartu deskantsua, Koldo, eta guk egingo dogu gure esku daguana.

**AINARA ARGOITIA**



**Gozamena izan da, KOLDO, zu ezagutzea eta zurekin lan egitea. Benetan!**

...eta kitto! Euskara Elkartea



*Eibarko EH Bilduk "alternatEIBAR" izenburuari jarraituta antolatu dituen hitzaldi sortaren barruan, datorren martitzenean hondakinen berrerabilpenaz berba egingo dute Emaus fundazioko ordezkariek, 19.00etan Portalean. Birziklapenari etekinik handiena ateratzeko kontuetan adituak dira Emausekoak. Euren eskutik sortutako Ekocenterrak dira horren adibide.*

## BEGOÑA CABALEIRO (Emaus-Ekocenter):

# "Ekocenterra bigarren eskuko denda baino askoz gehiago da"

***- Zer da Ekocenter bat?***

Toki bat baino gehiago, ahalik eta hondakin gutxien sortzea ahalbidetzen duen azpiegitura dela esan dezakegu eta, gainera, gizarteak baztertzeko arriskuan daudenentzat lanpostuak sortzen ditugu Ekocenter izeneko horietan. Jendearentzat alderik ezagunena, gehien ikusten dena behintzat erabilitako gauzen salmentarako denda litzateke, baina horretaraino ailegatu baino lehen, prozesua askoz lehenago hasten da, hainbeste ikusten ez diren beste pauso batzuk emanda.

***- Eta zeintzuk dira pauso horiek?***

Lehenik eta behin, hondakinen murrizketan garrantzitsua den lana egiten da: jendeak nahi ez dituen gauzak jaso eta berriz erabili ahal izateko, bigarren aukera ematen zaie. Beste barik, norabaitera botaz gero sekulagehiago erabiliko ez lirateken gauzak berriz erabiltzea ahalbidetzearekin batera, hondakin kopurua murriztu egiten dugu. Jendeak zuzenean guri ekartzen dizkigu nahi ez dituen gauzak edo, bestela, gu bila joaten gara. Horrela, kalean edozein modutan pilatuta, luzaroan hondatzen egotea saihesten da eta, beraz, berriz erabiltzeko aukerak ere areagotu egiten dira.




***- Ondoren, zer egiten duzue jasotzen dituzuen gauzekin?***

Ingurumena zaintzeko irizpideei jarraituta, Ekocenterretako beharginek sailkatzen hasten dira: lehenik eta behin birziklatzekoak alde batera eta hondakinak bestera joaten dira. Eta birziklagarriak direnen artean, batzuk guk zuzenean birziklatzen ditugu eta beste batzuk, berriz, baimendutako beste toki batzuetara eramaten dira.

***- Ehungitzan ez duzue inolako hondakinik sortzen, ezta?***

Bai, %100 aprobetxatzen dugu, izan ere, hondakin moduan sailkatutakoak ez ditugu botatzen, tailer eta bestelakoetan erabiltzeko trapuak egiten ditugu eta, horretarako ez badute balio, Frantziara bidaltzen ditugu eta hango enpresa batek isolamendurako material gisara berrerabiltzen du. Prozesua osotasunean kontrolatzen dugu.

***- Berrerabiltzeko prestatzen dituzuenak, baina, salgai ipintzen dituzue gero, ezta?***

Bai, horiek guztiak salgai ipintzen dira gure zentruetan, baina erabilitako gauzak saltzeko denda baino gehiago izaten ahalegintzen gara: jendeak bigarren eskuko gauzei balioa ematen ikastea nahi dugu, gauzak konpontzeko kultura zabaldu, prezio merkeen politika hedatu… horiek guztiak eta gehiago lortzeko beharrean dihardugu Irun, Donostia eta Avilesen zabalik dauden Ekocenterretan. Hilaren 15ean Arrasaten laugarren bat zabaltzekotan gaude eta Eibarren ere Ekocenterra laster zabaltzea gustatuko litzaiguke.

---

**MARIXABEL IBARRA GARITAOANDIA**

**2. URTEURRENA** *(2012-IV-7)*



*Gure albotik juan ziñan, baiña zure irribarrea eta maittasuna beti egongo dira gure bihotzetan.*

ETXEKOEN PARTEZ



# OSASUN GIDA

## Dentistak

**ARAT Hortz Klinika**
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura*

**Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...**

Clínicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1.esk. Telf: 943 20 18 51

---

RPS: 53/13

**bista eder**
clínica dental - hortz klinika

**Asko dira** gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE**
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

---

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

---

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

---

RPS 04/02

**IRAZABAL**
clínica dental

**Irribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

---

**hortz-klinika**
***B. IZAGIRRE***
**clínica dental**
EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

---



**invisalign**
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia ume eta helduentzat**

**Mª Dolores Olaizola Doktorea**
RPS 195/11

